



Lau egunez txintxarriak astinduz Alegiako Karmen jaietan

HASIERA ▶ Atzo hasi ziren festa alternatiboak txupinazoarekin

KANTAK ▶ Gaur hasiko dira ofizialak; herriko bi abesbatzak ariko dira

MUSIKA ▶ Bihar, Javi P3Z eta Split 77 taldeak; igandea arte luzatuko dira jaiak ▶ 5-9

TOLOSA ▶

«Salaketa larriei» erantzun die EAJk

Voith-Gorostidi eremuan «garden» aritu dela dio ▶ 2

ZIZURKIL ▶

Etzi izango da Koadrilen Eguna 3. urtez

Poteoa, bazkaria eta jokoak izango dira egunean zehar ▶ 4



Leaburuko Benta bota eta etxe berria hasi dira egiten

LEABURU ▶ Duela bost urte itxi zen Leaburuko Benta bota eta etxe berria ari dira eraikitzen. Bere bizitzako une gehienak bertan iragan zituen Maria Dolores Ezenarro haren sorrera eta itxiera bitartekoak goratu ditu HITZarentzat. Zabalik egon zen 115 urteetan bost belaunaldi aritu ziren lanean eta bertara jatera eta eda-

tera inguruko herritako jende asko joaten zela aipatu du. Oraindik ere Ezenarro eta bere familia askotan joaten da asteburuetan, Bentaren ondoko txabolara. Orain etxe berria eraikitzeko lanak hasi dituzte eta atzo ateratako argazkian ikus daitezke lan horien egoera. INIGO TERRADILLOS ▶ 10

- ▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **BETI ALAI** jatetxean 4 lagunentzako otordu eder bat zozketatuko dugu



POLITIKA ▶

LEIRE MONTES

«Oro har, ez diegu beste alderdiek egindako balorazioei eta kritikei erantzuten. Oposizioaren lana da, azken finean, kritika horiek egitea. Baina aurreko prentsaurrekoan Tolosa Bizirik-ek (TB) egindako bi akusazioak, isiltasuna eta ustelkeria, oso larritzat jotzen ditugu. Horregatik, erantzuteko gaude hemen». Hala hasi zuten prentsa agerraldia, atzo, Jokin Bildarratz alkateak eta Jokin Azkue eta Andoni Imaz zinegotziek. Voith-Gorostidi eremuari buruz «gauzak argitzea» zuen helburu prentsaurrekoak. «Eraginkortasuna eta gardentasuna dira gure ardatzak», esan zuten.

Lehenik eta behin, proiektuaren bideragarritasunean «guztiak ados» daudela esan zuen Bildarratzek. Horretarako, bete beharreko bi baldintza zehaztu ditu bere taldeak: «Herriko industriaren babesa eta sustapena, eta babes ofizialeko etxebizitzaren kopuru handia». «Taldea politiko denek operazioaren datu guztiak» dituztela gaineratu zuen.

Lurra erosiko duten enpresak «EAJren ingurukoak» direla salatu zuen aurreko prentsaurrekoan TB-ek. «Bistan denez, enpresek beraiek erabakiko dute lurra nori saldu. Enpresa bakoitzak nahi duenarekin negoziatzen du. Eta nahi diotenari salduko dizkiote lurrrak, ez guk esandakoari», erantzun zion horri, tinko, alkateak.

Bere taldeari eta zuzenean hari egindako ustelkeria salaketagatik haserre agertu zen: «Ustelkeria? Bi datu hartu behar dira kontuan: enpresa horiek Apattaerrekara eramateak zenbaterako kostua duen, eta eraikiko diren etxebizitzek Udalarentzat babes ofizialeko zenbaterako kopurua izan behar duten. Bi aldagai horiekin jotuz izango dugu emaitza, ez dago besterik».

Lekualdaketa horrek «ahal den kosturik baxuena izatea eta lurraren salmentatik en-

«Eskua luzatzen jarraituko dugu, errespetua badago»

Voith-Gorostidi eremuaren gainean Tolosa Bizirik-ek egindako «salaketa larri» erantzun dio EAJk: «Eraginkortasuna eta gardentasuna dira gure ardatzak»



Ezker-eskuin: Andoni Imaz, Jokin Bildarratz eta Jokin Azkue, atzoko agerraldian, udaletxean. LEIRE MONTES

presek ahal duten etekin handiena lortzea» nahi du Udalak. Babes ofizialeko etxebizitzei dagokienean, %50eko babesarekin hasi zirela azaldu zuen Bildarratzek, eta %63ra iristeko asmoa dutela. «Kontuan hartuta lurzoru pribatua dela, Tolosan ez da inoiz horrelakorik gertatu. Eta Euskal Herrian ere ez duzue aurkituko hau bezelakorik. Esaterako, aprobatako azken proiektuan, Geltokialdean, %80 zen libre, eta %20 babestutakoa; han ere pribatua zen zorua, Renferena. Kopuru horiek hala dira berez legez. Baina guk ez genuen horrekin konformatu nahi, eta gazteen beharrei erantzuteko ari gara buru-belarri lanean». «Ezker abertzaleak enpresari ez zeta entzun zuen, eta ez zen berriro elkartu gaiari irten-

bidea emateko», salatu zuen, era berean.

Plataformak egindako *pelotazo* salaketari ere erantzun zion Bildarratzek: «Ezin du *pelotazo*-rik egon inorentzat. Baldintza hori jarri genuen hasieratik. Eta enpresak zentzuz eta herriaren alde ari dira jokatzeko».

Laskorain Goikoa

«Udalak herritarrei bizkarra eman die. Laskorain Goikoan, adibidez, babes ofizialeko etxe ugari egin daitezke. Baina Udalak horren inguruan ez du ezer jakin nahi». Tolosa Bizirik herri ekimeneko udal ordezkariak hitzak dira horietatik. Baiezta-pen horri ere tinko erantzun zion Bildarratzek, zenbait txosten mahai gainean jarrit:

«2003ko apirilean, Gipuzkoako Foru Aldundiak Laskorain Goikoa eremuaren hiri antolaketa-ko arauen aldaketa eten egin zuen. Handik hilabetera, ordea, 2003ko abenduan, arauen aldaketarako onespina eman zion Aldundiak egungo gobernuari. Aspalditik egin beharreko konpromisoari eutsi genion guk: arau subsidiarioen aldaketa».

Proiektua «oraingoz geldirik» dagoela onartuz, geldialdiaren arrazoiak berri eman zuten: «Egun 232 etxebizitza eraikitze modua dago bertan. Baina arauak aldatuz gero, gehiago eman dezake eremu horrek. Gazteen beharrik hori baino altuagoak dira, gainera. Horregatik guztiagatik itxarotzea erabaki dugu». «Proiektu bat gelditu dugula esaten digu

ETXEBIZITZAK

«%50eko babesarekin hasi ginen, eta %63ra iristea da gure asmoa; lanean ari gara gazteen beharrei erantzuteko»

TB-ek; baina ezker abertzalea ez da hori kudeatzeko gai izan urteotan. 1992an hasi zen operazio hau, eta orain lortu da zerbait. Hori bai, askoren lanarekin; baita plataforma bera ere».

«Errespetua eta lana» eskatu zituen alkateak: «Tolosarako onena nahi dugu guztiak. Engranaje bakarra osatzen dugu denok. Guri une hau bizitzea egokitu zaigu, baina nik asko baloratzen dut gure aurretik pasatako hainbatek eta hainbatek egindako lana. Ohikoa da eztabaidak egotea. Politika aberasten dutela esango nuke, beti ere errespetuz egindakoak badira».

Horixe, errespetua, jarri zuen baldintza bakartzat alderdi guztiekin hitz egiteko. «Ezin da nahi denean nahi dena esan. Zerbait erakutsi behar da, bada, pertsona bat ustelkeriatan ari dela esatean. Eta ezin da prentsa erabili horretarako, aurrez aurre ezer esan gabe. Hori ez da oposizioa egitea, zital jokatzeko baizik». Dena den, «behin eta berriro eskua luzatzen jarraituko» dutela azpimarratu zuen Bildarratzek: «Tolosa Bizirik-ekoei eta guztiei. Nahi duenak eska ditzala datuak eta informazioa. Prest gongoz gara emateko, gardentasuna baita gure ardatza».

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio berean

GIZARTEA ▶

Santa Maria parrokira bisita gidatua

Tolosaldea Tour, eskualdeko turismo bulegoak antolatu du gaur iluntzerako

IRATXE ETXEBESTE

Tolosaldea Tour, eskualdeko turismo bulegoak askotariko ekitaldiak ari da antolatzen azken hilabeteetan Tolosaldea ezagutzera emateko. Kanpotik eskualdera oporrak pasatzera datozenei bakarriz ez, hemen inguruan bizi diren herritarrei ere zuzendutakoak badira ekimen horiek guztiak, eta, gaur-

ko, adibidez, ekintza berezia antolatu dute turismo bulego-ko arduradunek: Santa Maria parrokira bisita gidatua, hain zuzen ere.

Asko eta asko dira hala barritik nola kanpotik eliza hori ezagutzen duten herritarrak, baina Tolosaldea Tour-eko ordezkariak hitzetan, «oso gutxi parrokiaren inguruko benetako ezagutzak dituztenak». Hori



Santa Maria parrokiaren bisita gidatuak izango dira gaur iluntzean. HITZA

dela-eta antolatu dute bisita gidatua: alegia, «Santa Maria parroki eliza herritarrei ezagutzera emateko helburuarekin».

Eta horretarako, bi aditu gidatu dituzte ekimenaren sustatzaileek: Antxon Agirre Sorondo etnografoak gidatuko du bisita Ramon Aierza Elizarranen laguntzarekin. Eta ekitaldia are bereziago egiteko, musika doinuak entzun ahal izango dituzte bertara hurbiltzen direnek, Jose Arcelus Igarzabal organojoleak zuzeneko emanaldia eskainiko duelako herritarrak bisita gidatua egiten ari diren bitartean, ekimena girotzeko.

Tolosaldea Tour turismo bulego arduradunek deialdi zabala egin dute herritarren artean, interesa duten guztiak ekimenean parte har dezaten. Santa Maria elizaren kanpoaldean egin dute hitzordua gaur, 20:00etan.

MENDIA ▶

Alpino Uzturreren irteera Picos de Europara

Kantabriako (Espainia) Picos de Europara mendira irteera antolatu du Alpino Uzturrek hilaren 23tik 25era. Pablo Gorosabeletik irtingo dira mendizaleak 08:00etan, eta bost orduko ibilaldian, Pico Tesorero (2.570m.) mendia igotzeko aukera izango dute. Elkarteak Gudari kalean duen egoitzan eman behar da izena irteerara joateko.

EUSKARA ▶

EGA ikastaro trinkorako izena emateko aukera

Aitzol udal eskualtegiak EGA ikastaro trinkoa antolatu du irailarako, baina eskoletan parte hartu ahal izateko aurretik eman behar da izena. Hain zuzen ere, bihar da ikastaro trinkoan izena emateko azken eguna. Ekimen horren inguruko informazio gehiago jasoko dute interesatuek 943 65 10 06 telefono zenbakira deituz gero.

GIZARTEA ▶

Errioxara irteera antolatu du Iturriza elkarteak

Tolosako Iturriza jubilatuen eta pentsiodunen elkarteak Errioxara irteera antolatu du bazkideentzat datorren hilerako. Zehazki, Brioneseko Ardoaren Museora joango dira izena ematen duten guztiak abuztuaren 5ean. Iturriza elkarteak Euskal Herria plazan duen egoitzan eman behar da izena, hilaren 31 baino lehen.

ZINEMA ▶

Zinemazaleen bilera gaur, Kultur Etxean

Tolosan duela gutxi sortu den zinemazale taldeak beste bilera bat izango du gaur, 20:00etan, Kultur Etxean. Bertan, Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkeztutako proposamenari emandako «erantzun baikorren» xehetasunak emango dituzte ezagutzera. Eskualdeko zinemazale guztiak daude deituta bilera horretara.

FUTBOLA ▶

2. Mailako Lorcak fitxatu du Xabier Jauregi atezaina

Denboraldi honetan Kordoba jokatu duen Xabier Jauregi futbolari tolosarra Lorcak fitxatu du datorren denboraldirako. Kordoba 2. Mailatik 2. Bra jaitsi da aurretik eta Lorcak alderantzizko bidea egin du, Real Unionen aurka lortuz igoera. Jauregik 30 urte eta Tolosa, Logroñes, Beasain, Ferrol eta Eibar taldeetan ere jokatu du.

PALA ▶

Paleta txapelketako beste bost partida jokatu dituzte gaur eta bihar artean

Tolosa CF-k antolatutako ekimenean maila bikaina ari dira erakusten

I. ETXEBESTE

XXXVII. Tolosa CF-ko Paleta Txapelketa erdialdera iristen ari da, eta kirolariak maila bikaina ari dira erakusten. Hala ere, behintzat, txapelketaren antolatzaileek. Asteleheneko eta astearteko partiduetako emaitzak dira horren erakusgarri: astelehenean, Lakunzak eta Agotekek osatutako bikoteak 30 eta 28 irabazi zion Agirrek eta Eglizatek osatutakoari; Balerdik eta Artolak ere emaitza

berarekin irabazi zieten Bengoari eta Bengoetxeari (30-28) eta Lontxok eta Nazabalek 30 eta 15 hartu zituzten mendean Eizmendi eta Arandia.

Asteartean, berriz, Yugueros eta Aldazabalek jokatu zuten Eizmendiren eta Arandiarren aurka, eta 30-22ko emaitzarekin bukatu zen norgehiagoka, lehenengo bikotearen alde. Zabaleta eta Urdanpilleta ere aritu ziren egun horretan Sarasuaren eta Txapartegiren aurka, eta 30 eta 22 irabazi zu-

ten horiek ere. Atzoko partiduetan hasi aurretik itxita zegoen jada erredakzio hau.

Datozen partiduetak

Asteburua heldu baino lehen, beste bi partida egun geratzen dira: gaurkoa eta biharkoa. Yugueros eta Aldazabalek Landaren eta Huegunen aurka jokatuko dute gaur 18:30ean, segidan ariko dira Lontxo eta Nazabal Balerdiren eta Artolaren kontra eta, azkenik, Zabaleta

eta Urdanpilletak Bengoaren eta Bengoetxearen aurka jardungo dute. Bihar 19:00etan, Goitiak eta Oterminek jokatuko dute Landaren eta Huegunen kontra, eta jarraian Apeztegiak eta Maizak neurtuko dituzte indarrak Agirrerren eta Maizaren aurrean.

Asteburuan atseden hartuko dute jokalariek, eta astelehenean jarraituko dute paleta txapelketako neurketek. Datorren asteko ostiralean, hilaren 22an, bukatuko dira sailkapen faseko partidak, eta hilaren 27an, asteazkenarekin, A taldeetik irabazten duen bikoteak B taldeko bigarrenaren aurka eta B taldeko irabazleak A taldeko irabazlearen kontra jokatu beharko dituzte finalerdiak. Sailkapen faseko norgehiagoka

guztiak bezala, Berazubiko frontoi txikian izango dira finalerdiak eta finaleko partiduetak iluntzean; hain zuzen ere, 20:00etatik aurrera.

Hilaren 29an izango da final handia, ostiralarekin, eta txapelketari behar bezalako amaiera emateko afaria egingo dute txapelketan parte hartu duten bikote guztiak eta txapelketa antolatu duten Tolosa CF-ren ordezkariak.

FINALA

Hilaren 27ko finalerdiak bukatu ostean, 29an izango da finala, Berazubiko frontoian, 20:00etatik aurrera

ZIZURKIL ▶ KOADRILA EGUNA

Koadrilen arteko festa izango dute etzi Joxe Arregi plazan

Blusak jantzita eguerdian poteoa egin ondoren, plazan bazkalduko dute eta ondoren jokoak egingo dituzte

IMANOL GARCIA

Hirugarren urtea da aurtan Koadrila Festa antolatzen dutela Zizurkilen. Koadrilak blusak erabiltzen hasi zirela 25. urteurrena betetzearekin batera otu zitzairen herrikoei festa antolatzeko herriko jaietatik kanpo. Horrela egin zuten lehen Koadrila Festa eta izandako arrakastaren ondorioz, jarraitzea pentsatu zuten. Etzi egingo dute hirugarrena, eguerdiko poteoarekin hasita.

13:00ak aldera elkartzuko dira Joxe Arregi plazan eta poteoari ekiteko eta bide batez, giroan sartzeko. Tabernaz taberna, musika lagun, taldeari kodrilak gehitzen joango zaie. Joxe Arregi plazara bueltatuko dira bazkarirako. 14:00etan hasiko da eta beste bi urteetan ez bezala, aurtengoan koadrila bakoitzak bere bazkaria eman beharko du. Horrek partaidetza bultzatzea ekarriko du. Barrikotea jarriko da eta beraz



lazo bazkariaren une bat Joxe Arregi plazan. GARAZI AZKUE

nahiko edateko aukera izango dute bazkaltzen ari direnek.

Ederki jan ondoren, jokoei hasiera emango zaie. Antolakuntza lanetan parte hartu duen Nerea Lizarragak azaldu duenez, «ondo pasatzeko ohiko jokoak izango dira: aulki jokoak, soka-saltoa, zaku-karreira...».

Festan 20 koadrila inguru

biduko direla espero dute eta haur, gazte, heldu eta jubilatuen koadrilak daude gonbidatuta, hau da, edozein adinetako koadrilak. «Herriko jendearekin egoteko aukera ederra da», dio Lizarragak. «Jaietaz aparte ez da izaten koadrila arteko ekitaldirik urtean zehar eta festa honekin beste aukera bat sortzen da».

VILLABONA ▶ KIROLA

Usakume tiraketako Behar-Zana Sari Nagusia antolatu dute iganderako

Sari ugari izango dira eta guztira 1.500 euro banatuko dira

ERREDAKZIOA

Usakume Tiraketako Behar-Zana Sari Nagusia egingo dute igandean, Izarre zelaian. XVIII. urtemuga dute aurtin, izan ere, Gipuzkoan egiten den tiraketa

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Web gunean eztabaidetan parte hartzeko aukera duzu, Tolosan inauguratu berri den bidegorriari buruz, adibidez: Zer iritzi duzu bere ibilbideari buruz?

beteranoena da. Bi txanda egingo dira: goizez eta arratsaldean, 11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 18:00etara.

Tiratzaileek 18 metroko distantziara aritu beharko dira et sei tiratzaileen seriek egingo dira. Gipuzkoako Ehiza Federazioko epaileak izango dira eta federazio horretako arauak jarraituko dira. Parte hartzeko 25 euro ordaindu behar dira eta usakumeen kostua aparte izango da.

Sari ugari izango dira eta guztira 1.500 euro banatuko dira. Antolatzaileek azaldu dutenez, usakumerik ez bota arren, sariak lortzeko aukera ere izango da, besteak egiten

dutenaren arabera. Irabazleak 450 euro, garaikurra eta urdaiazpikoa jasoko ditu. Bigarrenak 300 euro eta oparia. Hirugarrenak 200 euro eta oparia. Horrela hamalaugarrena arte, dirua eta oparia jasoko dute. 15. eta 30. arteko ere garaikurra edo oparia emango zaio. Behar-Zanako kideen arteko bi lehenengoen garaikurra izango dute. Saikapen orokorraz gain banatuko dira garaikur hauek.

Behar-Zana elkarteko antolatzaileek guztira 80tik 100 tiratzaile bitartean espero dituzte igandeko sarian. Usakumeak bertan eskuratu ahaliko dira.

ALKIZA ▶ AGENDA 21



Kultur Etxean egindako bileraren une bat. HITZA

Herri plana lantzen aritu dira alkizarrak

Hogeitabost lagun bildu ziren eta herriaren ahuleziak eta gabeziak landu zituzten

ERREDAKZIOA

Aurreko ostiral iluntzean Alkizako Kultur Etxean Agenda 21eko lehen herri bilera egin zen. Berataratu ziren herritarrek datu objektiboekin eta hainbat herritarri egindako elkarrizketetan jasotako iritziekin osatutako diagnostikoa ezagutzeaz gain, taldeka bilduta, Alkizak dituen ahuleziak eta gabeziak ere landu zituzten. 25 pertsona joan ziren bilerara eta hiru taldetan banatuta egin zuten lan: talde batek etxebizitza, gizarte eta osasun zerbitzuak eta hezikuntza landu zituen, beste batek jarduera ekonomikoak eta baserria eta hirugarren taldeak berriz herri giroa, ekipamenduak eta ekintzak eta mu-

gikortasuna aztertzen zuten. Talde lanean garbi ikusi ahal izan zen zenbait gaitan adostasun osoa zegoela. Beste gai batzuetan ordea, eztabaida ere sortu zen, herritarrek iritzi ezberdinak dituztelako.

Horrela bada, denen artean erabaki zen zein diren arazo garrantzitsuenak Alkizan, eta ondorioz, zein izango diren Alkizako herri planean garatu beharko diren gai garrantzitsuenak.

Giro polita sortu zen bileran eta herritar guztiek izan zuten bere iritzia emateko aukera. Taldeko lana bukatu eta gero ere, solasaldian jarraitu zuten herritarrek eta pintxo batzuk janz, herriko gaien buruz hizketan jarraitu zuen ere izan zen.

LARRAUL ▶ AGENDA 21

Herri bilera antolatu dute diagnostikoari buruz

ERREDAKZIOA

Etzi, 12:00etan, herri bilera egingo da Katilutxuko elkartearen, Larraulgo Udalak deituta, Agenda 21 prozesua dela eta osatu den diagnostikoaren zirriborroa aurkezteko eta herritar guztion artean antzerman diren hutsuneei konponbideak bilatzen saiatzeko.

Diagnostiko horretan mota guztietako gaiak landu dira: biztanleria, etxebizitzak, ekipamenduak, zerbitzuak, ekonomia, ingurumena... eta datu objektiboak biltzeaz gain, elkarrizketa bidez lortu-

tako herritarren iritziak ere kontuan hartu dira. Diagnostikoa erabat irekia da eta Udalak herritar guztien ekarpenak jaso nahi ditu. Gainera, diagnostiko horretatik abiatuta, herrirako etorkizunerako plangintza definitu nahi duenez, oso garrantzitsua da herritar guztiek parte hartzea. Bileran helduek ez ezik, haurrek ere parte ahaliko dute.

Bilera aurretik diagnostikoa irakurri nahi duenak, ikusgai du Larraulgo udalaren bertan. Interneten ere zintzilikatuko da, hain zuzen www.tolosamendi.net web orrialdean.

ALEGIA ▶ EGITARAU

EGITARAU ▶ EGUNEZ EGUN

Festa ofizialak

GAUR

10:00. Haur eta gaztetxoan mural pintaketa paseo berriko parkean.

10:30. Kartel lehiaketan parte hartu duten marrazkien erakusketa udaletxeko arkupetan.

11:30. Ordiziako erraldoi eta buruhandiak, Giroarte dultzaina taldea eta herriko trikitilarietara kalejira Larraitz auzotik plazaraino.

12:00. Euskal presoak Euskal Herrira lempaean konzentrazioa udaletxean eta ikurra jartzea.

12:00. Txupinazoa eta txintxarriaren goigero, jaien hasiera iragartzeko.

16:00. Haur jaialdia, kalebeherako parkean. Kale antzerkia, Potxin eta Patxin pailazoekin. Ondoren, merienda eta jokoak.

19:00. Erraldoi, buruhandi, dultzainero, bistulari eta trikitilarietara kalejira, Kalebeheratik irtenda.

19:30. Txintxarri txiki eta Txintxarri Abesbatzaren kontzertua elizan.

20:00. Erromeria Laja, Eguren eta Ziolarren *Azken Jazbana*.

21:00. Afaria, zikiro jatea

herriko plazan.

23:00. Mikel Markez abeslariaren kontzertua zineman.

23:30. Goiz aldera arte, erromeria Laja Eguren eta Ziolarren *Azken Jazbana*.

BIHAR

09:00. Herriko bistulari eta trikitilarietara alaituriko diana.

09:00. Jubilatuek antolatutako mendi marxa.

09:30. Giroarte dultzaina taldeak alaituriko diana.

11:00. Haurrentzat jolas parkea goiz eta arratsalde Larraitz auzoan (11:00-13:00 eta 15:00-18:00).

11:00. Incansables txaranga kalez kale ibiliko da egun guztian zehar.

11:00. Jubilatuentzat hamaiketako plazan.

12:30. Txistu kontzertua Danbolin Zar taldearekin enparantza nagusian.

16:00. Toka txapelketa herriko plazan.

21:00. Zahagiardo bateratua Aralar bideko zubian.

23:30. Rock kontzertua, Javi P3Z orkestra eta Split 77 taldeen eskutik.

ETZI

09:00. Herriko bistulari eta

trikitilarien diana.

09:30. Giroarte dultzaina taldeak alaituriko diana.

10:30. Herriko bistulari eta trikitilarietara kalejira.

11:00. Meza nagusia.

11:00. Ordiziako Arco Natura taldearen eskutik arku tiratzea, nahi duenak parte hartzeko aukera izango duenlarik.

12:00. Txakolin eta sagardo dastaketa sardina eta txorizo erreekin, Elena Zubillaga eta Ainhoa Zubillagak alaiturik.

17:00. Alegiako dantzarien emanaldia Larraitz auzoko plazan.

18:00. Herri kirolak Larraitz auzoan. Harri-jasotzaileak, Aimar Irigoien marka hausten saiatuko da, 5 minutuko tandan 225 kiloko harria altxatuz.

18:00. Miren Urkiola 88 kiloko kopa eta 60 kiloko bola altxatuko ditu. Aizkolariak, Joseba Otaegi eta Arkaitz Iriarte (Igartza)- Jon Rinkondo eta Xabier Mindegia.

22:30. Bertsolariak zineman. Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Jesus Mari Irazu eta Amets Arzallus. Gai jartzailea Felix Irazustabarrena izango da.

24:00. Goiz aldera arte, Makro diskoteka izango da herriko plazan.

IGANDEA

09:00. Herriko bistulari eta trikitilarien diana.

09:30. Giroarte dultzaina taldeak alaituriko diana.

10:30. Scalextric zirkuitoa

Kultur Etxeko batzar aretoan goiz guztian zehar; nahi duenak erabili ahal izateko. Bukaeran, Euskal Herriko txapelaren erakustaldia.

12:30. Ermuako Asocion folclorica Foulareda gaitero banda. Kalejira Larraitz auzotik eta kontzertua herriko plazan.

18:00. Pilota partiduak, afizionatuetan, Ugaitz Renobales eta Jokin Argote eta Mikel Beloso eta Jabi Oteiza.

19:00. Profesionalen pilota partiduak, Iker Arretxe eta Oier Mendizabal eta Julen Retegi Bi eta Escudero.

20:00. Oinkari dantza taldearen emanaldia plazan.

23:00. Dantzaldia Trakets taldearekin goizaldera arte.

24:00. Txintxarriaren erreketa Elena Zubillaga eta Ainhoa Zubillaga trikitilarien doinuak alaiturik.

Festa alternatiboak

GAUR

Pirata eguna, denok moztortuta. Arratsaldean,

karro klandestinoekin poteo pirata.

21:00. Zahagiardo

23:00. Kontzertuak Zeck, Brigada criminal eta Biok taldeekin.

BIHAR

14:00. Herri bazkaria. Ondoren Xantoxen txapelketa sari banaketa.

21:00. Zahagiardo bateratua zubin.

23:00. Kontzertuak Zorabioak, Trikizio eta Ayvala taldeekin.

Gau guztian zehar Gaztetxea zabalik.

ETZI

Arratsaldean Iru Ako Supongo batukada.

21:00. Zahagiardo.

23:00. Kontzertuak bulebarrean Asma Sixty sexers taldeekin eta ondoren DJ Bull musika jartzen.

IGANDEA

17:00. Urme jolasak.

19:00. May barre eragilearen saioa.

21:00. Zahagiardo.

23:00. Herriko bertsolarien emanaldia.

Ondoren kontzertua Mendeku itsua musika taldearen eskutik.

Lau egunez txintxarriak astinduz

Karmen jaiak ailegatu dira dagoeneko: alternatiboak atzo hasi ziren eta ofizialei gaur emango diote hasiera

NOELIA LATABURU

Uztailaren 14a. Urte guztia zain izan ondoren, bueltan dituzte Alegian Karmen jaiak. Herritarren artean diotenez «xarma bereziko jaiak» dira hauek eta arrazoiak ere ez dituzte faltan baieztapen honen aurrean. Izan ere, jai hauek ohiko ohiturak eta berrikuntzak uztartzen dituzte, adin eta era guztietakoen gozamenerako.

Aurten ere izango da estreinekoz antolatu diren ekintzak. Festa Batzordeko kideek batzuk azpimarratu nahi izan dituzte. Batetik, gaur bertan herriko plazan egingo duten zikiro jatearena. 21:00etan dute biltzeko hitzordua eta 200 lagun inguru bilduko da bertan. Afari hau «ilusio handiz» prestatu dute eta «arrakastatsua eta bereziki herritarrentzat» izango delakoan daude. Gainera, musikarentzako tartea ere utzi dute egun honetan

eta Mikel Markez abeslari ospetsuak doako kontzertua eskainiko du, ostean, herriko zinema aretoan eta erromeria ere izango da Laja Eguren eta Ziolarren *Azken jazbanaren* eskutik.

Alegiar zein kanpotarrek urte urte izaten direnekin gozatzeko aukera ere izango dute. Horrela, goizeroko diana, jubilatuen eguneko ekitaldiak bai eta haurrei zuzenduriko jolasak jaien zati garrantzitsua osatuko dute.

Festa alternatiboek ere izan dituzte euren alaketak, herri bazkariaren eguna, esaterako. Ohi ez bezala, aurten bihar egingo dute. Bazkaria amaitu bezain pronto, iragan apirillean hasi eta duela bi aste amaitu zen Xantoxen omenezko txapelketaren sari banaketa egingo dute. Gaur, berriz, pirata moztortua soinean dutela murgilduko dira jai giroan egun guztian zehar.



laz ere suziariarekin eman zioten hasiera jaiak. OLALIA ESKITXABEL

Irigoien, markaren bila

Etzi, larunbata, herri kirolak izango dira egitararen barnean nagusi eta, bereziki, ekitaldi batek erakarriko du jai egu honen garrantzia, Aimar Irigoien harri-jasotzailearen dema, hain zuzen ere. Izan ere Errezilgoa marka hausten saiatuko da, 18:00-etatik aurrera Larraitz auzoko plazan. Bost minutuko tandan, 225 kiloko harria altxatuz apurtu nahi du orain arteko marka harri-jasotzaileak. Antolatzaileek deia luzatu nahi dute herri kirolak gogoko dituzten guztiei bertaratu daitezen.

Aimar Irigoienaren erakustaldiaren ostean Miren Urkiola harri-jasotzailea ariko da, 88 kiloko kopa eta 60 kiloko bola altxatuz. Aizkolariaren emanaldia ere ikusi ahal izango dute Alegiara gerturaturatutakoak, Joseba Otaegi eta Arkaitz Iriarte eta Jon Rinkondo eta Xabier Mindegia- ren eskutik. ◀

ALEGIA ▶ TXUPINAZOAK

San Joan eskolako ikasleek jaurtiko dute gaur jaien suziria

12:00etan jaurtiko dute, Eduardo Tormo San Joan eskolako gorputz heziketa irakasle jubilatuekin batera



Iragan larunbatean eskolako ikasleek eginiko antzerkian. NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

Heldu da azkenean alegiarrek hainbeste espero izan duten unea, txupinazoa. Aurten 12:00etan jaurtiko da udal txeko balkoitik —aurreko urteetan arratsaldez baitzen—. Ohore handia izan ohi da txintxarriaren igoerak iragartzen duen txupinazoaren metxari su ematea. Aurten San Joan eskolako 6. mailako 20 ikasleek egingo dute, irakasle baten laguntzarekin. Eduardo Tormo da bera, aurten jubilatutako den irakaslea. Umiltasunez hartu du ardura irakasleak eta «oso pozik» dagoela ere aitortu du.

Festa Batzordekoek jakinarazi dutenez, «urtero norbait berezia aukeratzeko saiatsen gara eta aurten Tormori eskaintzea erabaki aproposa iruditu zitzaigun». Umeei ere aukera eman nahi izan zaie une berezi hau bizi ahal izateko. Ume hauek bertan dira, hain zuzen ere, pasa den larunbatean antzerkia eskaini zutenak, herriko zinemaren. Aretoa lepo bete zuten eta algarak ere eragin zituzten guztion artean. Bi saio taularatu zituzten, batetik, *Ama begira zazu* lan ezaguna eta, bestetik, *Martxin txiki eta jentilak*. Jaientzat motorrak berotzen hasteko balio izan zion herriari antzerki emanaldi honen eta jendea bai eta irakasleak pozik azaldu ziren emaitzarekin. Gaur ere umeei badute non gozatu, izan ere, lehen aldiz mural pintaketa antolatuko dute, 10:00etatik aurrera, paseo berriko parkean. Bertan

Marrazki irabazlea

Aurtengo jaien egitarauaren marrazkia San Joan eskolako ikasleen artean eginiko lehiaketa baten emaitza da. Festa Batzordeak ikasle guztiei marrazki bana egiteko proposamena luzatu zien.

Erabakia zaila izan zen batzordeko kideentzat zeinak bileretan zeintzuk heldu finalera erabaki zuten. Azkenik Ainitze Telletxea gaztearen marrazkiak irabazi zuen egitarauaren azala osatzeko eta Enara Karrerarena kontrazalerako. Logotipoa, berriz, Arena Ojedarena da. ◀



Jaien egitaraua. HITZA

parte hartu dutenek pintzelak eta arropa zaharrak etxetik eraman beharko dituztela jakinarazi dute Festa Batzordekoek. Ondoren marrazki erakusketa egingo dute.

Suziria botaz hasi dituzte jai alternatiboak

Atzo murgildu ziren jai giroan; gaur izango dute zer gozatu Gaztetxean



Suziriak iragarri ditu Karmen jaien bost egunak. N. LATABURU

N. LATABURU

Festa ofizialak gaur hasiko badira ere, Alegiako Gaztetxeak urtero antolatzen dituen festa alternatiboak atzo bizitu zuten euren lehen jai eguna. Erlojuak 19:00ak zituenean suziria jaurti zuten Gaztetxeo kideek, Karmen Jaiak ongi etorria emateko. Ondoren sagardo probaketa egin zuten, txorizoa eta guzti. Gualdean, berriz, zahagiardoa izan zuten, Epelde eta Larrañagaren doinuek alaiturik. Giro polita sortu zen gazteen artean, are gehiago aurretik lau egun dituztela jakinik.

Egunero ez zaie faltako zahagiardoa, baina biharko berezia izango da, izan ere festa ofizialekoekin bat egingo dute Aralar bideko zubian. Ondoren, Javi Pez orkestraren eta Split 77 taldearen kontzertuak izango dira entzungai herriko plazan. Harremanak «onak» badira ere, ez dute komuneko

egitarauarik festa ofizialek eta alternatiboek eta, beraz, hau izango da lau egunetan zehar batera egingo duten ekitaldi bakarra.

Festa alternatiboak prestatzen ere buru belarri aritu dira Gaztetxeo kideek eta «pozik» daude emaitzekin. Orain, «jendearen erantzun positiboa» jasotzea espero dute.

Festa alternatiboaren egitarauaren barnean ere badira usadio bilakatu diren ekintzak. Ohiko herri bazkaria, esaterako. Bihar gazteak dute Gaztetxean eta gehigarri bereziarekin gainera. Izan ere, Etxale Kuyons, Xantox ome-nezko futbol txapelketako irabazleak sarituko dituzte. «Sari hauekin batera txantxetan ere banatzen ditugu gure artean sariak; giro bikaina sortzen da honen harira». Jakinarazi dutenez, orain artean txartelik erosi ez duenak 10 euro ordaindu beharko dituzte joan ahal izateko.

HORTZ-KLINIKA
Manuel Renobales Iturbe doktorea
M^o Pilar Martínez Andueza doktorea
Larraitz, 15-1. esk.
Tel.: 943 65 41 12 ALEGIA

ONDA Ondo pasa festak!
janaridenda
San Juan, 44 • ALEGIA • Tel.: 943 65 30 40

TXINTXARRI JATETXEA
Jai zoriontsuak opa dizkizue!
ALEGIA
Tel.: 943 65 07 21

ISKIÑA TABERNA
Goizean Salda
Gauetan martxa!
INTERNET
San Juan, 59 ALEGIA
Tlf.: 943653097

Galdaragintza Ondo pasa jaietan!
BURNI, S.L.
Errotalde, 24 • Tel.: 943 653112 • Faxa: 943 655532
ALEGIA

ALEGIKO ZAHARREN EGOITZA
EDARITEGIA
Gosariak, pintxoak, meriendak eta... GIRO JATORRIA!
Alegiko plaza • Tel.: 943 65 58 00

ALEGIA ▶ MUSIKARIAK

Trikitixa eta txistua. Txistua eta trikitixa. Gure nortasunaren doinuak dira eta Elena Zubillaga eta Izaskun Lopetegi arduratzen dira, besteak beste, urtez urte Karmen jaiak doinu hauekin bustitzen; lau egun hauetan zehar beraien burutzen duten lanaren gainean jardun dute bi alegiarrek NOELIA LATABURU

ELENA ZUBILLAGA ▶ TRIKITILARIA

«Herriko plazan jendea dantza soltean gehiago aritzea gustura hartuko nuke»

Trikitixarekin alaitzen ditu goizero Alegiako kaleak dieran duela bost urte

Gaztea izanagatik, jaietan protagonismo berezia jasotzen du Elena Zubillaga alegiarrak, berak alaitzen baititu, aurtengoan ahizpa duen Ainhoa Zubillagarekin batera, goizero dianak bere trikiti doinuekin, bai eta beste zenbait ekitaldi ere.

Zen da zure eginkizuna Karmen jaietan?

Goizero izaten den dieran aritzen naiz trikitixa jotzen, bai eta egunean zehar diren erromerietan ere. Larunbateko txakolin eta sagardo dastaketan ere ariko gara, txupinazioan eta umeen buruhandiekin, besteak beste. Mirari Mendizabalekin aritzen naiz beti, baina aurren nire ahizparekin aterako naiz. Ainhoarekin, alegia.

Noiz hasi zinen dieran trikitiarekin?

Trikitixarekin 10 urte nituela hasi nintzen eta herriko jaietan jotzen, berriz, duela bost.

Herritarra izanik, nola bizi-tzen dituzu jaiak?

Niretzat festa hauek xarmangarriak dira, beti ere norberarekin bere herriko jaiak bereziak dira. Aukera denentzat dago eta gauean sortzen den giroa bikaina da.

Zer da trikitixa jotzeari ikusten diozun alderdirik okerrena?

Dianak goizean goiz dira eta oso gogorra egiten zait esnatzea. Gainera, jende askok ez du gure lana baloratzen, lo egoten dira eta behin baino gehiagotan leporatu didate gure doinuek esnarazi izana.

Zedozer positiboa ere izango du, bada?



Dudarik gabe. Gustura aritzen naiz jotzen, baina nekagarria ere suertatzen zait. Karmen oso giro ona sortzen da plazan eta tabernetan gauetan. Gainera, trena dagoenez inguruko inguruko herrietakoak errezago animatzen dira.

Zer dute faltan Karmen jaiak?

Jendea dantza soltean gehiago aritzea gustura hartuko nuke, azken urteetan DJak jarri baitira modan eta zailagoa da trikitixarekin jendea altxatzea.

Bereziki prestatzen al dituzu kalejiretako abestiak?

Egia esan egun batzuk lehenago hasten gara entseguekin baina ez ditugu bereziki prestatzen. Nahiko barnarututa izaten ditugu jo beharreko piezak eta, beraz, errepasotxo bat nahikoa izaten dugu dena ondo irteteko.

Jaien bezperan gaude. Nola ikusten dituzu aurtengoak?

Egitaruari ez diot gehiegi erreparatu oraindik, soilik ahizpa eta biok noiz jo behar dugun begiratu dut, baina ondo egongo direla ziur nago, urterto bezala. ◀

IZASKUN LOPETEGI ▶ TXISTULARIA

«Aspaldian ikusi ez dudan herriko jendea kalean topatzea eta haiekin hizketan aritzea gustatzen zait»

Alegiarrak txistua jotzen du diana eta kalejiretan, Rikardo Intxausti eta Elena Alustizarekin batera

Langilea, ama, antzezlea, txistularia... hamaika aurpegiko emakumea da Izaskun Lopetegi. Bera ere jaiak alaitzeko aha-legendetan aritzen da urtez urte, instrumentu bat medio, txistua. Nekaezina da, «are gehiago lau egun hauetan». Pozik azaltzen da jaien etorrerarekin eta «dena prest» du dagoeneko.

Nola bizi dituzu jaien aurreko egun hauek?

Ez ditut bereziki bizi, egia esan. Herrian dagoeneko nabaritzen da jaiak datozela eta jendea gogotsu dabil, baina nik eguneroko bizitza egiten dut berdin-berdin.

Zenbatetan joko duzu txistua aurretik?

Egunero aritzen gara, diana eta meza aurretik. Dantzarietara jotzen diegu. Hiru partaide

gara Rikardo Intxausti, Elena Alustiza eta hirurok. Azken egunetarako gogor xamarra egiten bada ere, pozik aritzen gara elkarrekin.

Karmen jaiak. Zer suposatzen du zuretzat?

Beti ere herrikoa izanik bereziak dira jai hauek. Hala ere, nik orain eguneko giroa bizi-tzen dut, izan ere 2 urteko alaba dut eta gaueko parrandekin amaitu behar izan dut.

Noiz hasi zinen kalejirekin?

Urte morderoa igaro da lehen aldiz irten ginenetik, izango dira 20 urte inguru. Aspaldi bilakatu zen ohitura gurean ni txistua jotzea Karmenetan. Horrelako gauzetan aritzea asko gustatzen zait.

Jendeak ondo erantzuten al du zuen lanari?

Honetan ere denetarik dago. Goizeko dianetan jende askorentzat molestia garelako diote, baina jotzera irteten ez garen egunetan ere kexatu egiten dira. Honek esan nahi du ondo hartzen gaituztela eta usadio bilakatu dela gure doinuekin esnatzea eta kalejiran irtetea.

Jaien unerik gogokoena?

Egunez sortzen dugun giroa. Aspaldian ikusi ez duzu jendea bertan topatzea eta haiekin hizketan aritzea asko gustatzen zait. Harremanak estutzeko baliagarria da gainera.

Eta aldatzekoa?

Jaiak denetarik dute, festa alternatiboekin eta ofizialekin. Hala ere, antzerki gehiago, edo zedozer, sartzea gustura hartuko nuke. Gure kultura sustatzeko izan beharko luke. ◀



ALEGIA ▶ MUSIKA

Javi P3Z orkestra eta Split 77 taldeek girotuko dute bihar gaua zahagiardo bateratuan

Atzo hasi eta igandera bitarte festa alternatiboak ere antolatu ditzute Karmen jaien barnean; musikak, bazkari eta afariek osatzen dituzte agenda



Split 77 musika taldeko partaideak; bihar gauean ariko dira jotzen Aralar bideko zelaian zahagiardo bateratuan; «gogotsu» datoz Alegiara. HITZA

NOELIA LATABURU

Bihar gauean zahagiardo bateratua egingo dute festa alternatibotakoek eta festa ofizialekoek, Aralar bideko zelaian. Bi musika taldek hartuko dute elkartaritze hau girotzeko ardu-

ra, Split 77 eta Jave P3Z orkestra taldeak, hain zuzen ere. Talde hauek «gogotsu» datoz Alegiara, taldeen bi managerrek jakitera eman dutenez.

Split 77 taldea bilbotarra da, duela zazpi urte hasi zen musika munduan eta ordutik bi dis-

ka kaleratu ditu. Lehenengoa 2002. urtean izan zen *Antenna* izeneko. Oso kritika onak lortu zituzten lan honi esker eta lanean jarraitzeko bidea ireki ere ireki zitzairen. «Beren gaztetasuna kontutan izanik, urte dezente daraman taldea dugu be-

rau, ez agian eszenatoki gainean baina bai entsegu lokalean, musika hausnartzen eta ikeritzen, beti ere soinu eta sonordade berriekin jotzen», adierazi du bere managerra den Gotzon Uribe. Eskoziako jaialdi ospetsu batean jo zuen taldeak —bertan jo duen eskal talde bakarra, gainera—. Bigarren diska heldu zen orduan, *Mentura*. Hasiera batean 600 ale plazaratu zituzten, azal brokelatuarekin eta Oteizaren eskultura batekin. Bilboko taldeak euskaraz abesten du, 80. hamarkadako ingeles musika estiloa oinarri duelarik. Uribe managerraren esanetan, «beraien helburu nagusia betidanik entzun izan duten musika estiloa jorratzea izan da, baina era berean euskaraz abestuz». Bada, pop-rock estiloz defini-

SPLIT 77 ▶

Partaideak. Aritz Aranburu (ahotsa eta kitarra), Ekaitz Hernandez (baxua), Izkandar Rementeria (teklatura) eta Nabxo Karmona (bateria).
Azken diska. *Mentura*.

JAVI PEZ ORKESTRA ▶

Partaideak. Javi P3Z (Ahotsa eta samplers eta zuzendaritza), Galder Eizagirre (bateria), Makala (Baxua), Jon Lonbera (kitarra), Jimmi Bidaurreta (teklatura), Luis Camino (perkusioa), Jon Elizalde (tronboia), Aritz Lonbide (trona) eta Igor Ruiz (saxofoia).
Azken diska. *Sports*.

tzen dute bere estiloa, «dantzarako doinuekin, eguneratua». Tolosaldea bisitatu izan du talde bilbotarrak. «Tolosan, Villabonan eta Anoetan esaterako»; gainera, «Javi Pez Orkestrarekin batera aritzeko gogotsu dago taldea» Uriberen esanetan.

Javi P3Z-en taldearen bisita

Javi P3Z Orkestrakoak ere «indar handiz datoz Alegiara», bere managerra den Marta Fontanals kataluniarrak adierazi duenez. Javi P3Z Donostian jaiotako ekoizlea da, musika elektronikoaren eta esperimentalaren barruan izen handikoa. Elektronikaldia Jaialdiaren sortzaile eta antolatzailea, Etxekalte Dantza Klubaren antolatzailea eta DJ lanetan ere aritzen da bertan. Halaber, *Danzklub* saioa zuzentzen du astero Herri Irratian.

Talde askotan aritu da gainera donostiara, Parafunk, Digi Onze, Instrumental (Ibon Errazkin ex LeMans-ekin), Camping Gaz & Digi Random, besteak beste. Ibilaldi luzearen ostean, egun bere orkestrarekin dihardu lanean eta «bere lurretan jotzeko desiatzen» ari dela esan du Fontanalsek. Musika zaleek hitzordua dute, beraz, Alegian.

AZPEITIA
ELEKTRIZITATEA, S.L.
Festa zoriontsuak opa dizkizue!
San Juan, 6 • ALEGIA
Tel.: 943 65 30 73 • mug.: 608 77 35 05

MARITXU
JAHARIDENDA
Ondo pasa jaietan!

AUTOCARES
TXINDOKI
FESTA ONAK PASA
HERRIKOAK ETA
KANPOKOAK!
ALEGIA
Tlf.: 943 65 30 12

ESNAZU
Kirclak
GAZTE ERROPA

ESNAZU
Jantziak
GIZONEZKO ZELIN
EMAKUMEZKOENTZAT

San Juan kalea, 14 • ALEGIA • Tel.: 943 65 37 94



ALEGIAKO UDALA

GUREAN EZ DA BETI JAI
BAINA BADIRA MILA MOTIBO
KANTATZEKO, DANTZATZEKO ALAI,
AGUR BAT ETA OROITZAPENEAN BESARKADA
GUREKIN EZ DAUDENAI

ONDO PASA FESTAK!!!

Enparantza Nagusia z/g • Tel.: 943 65 30 16 • www.alegia.net

ALEGIA ▶ KULTURA

Txintxarri txikik eta Txintxarrik jaietako kontzertua emango dute

Urtero bezala, gaur izango da kontzertua San Joan Batailazailearen elizan, 19:30etik aurrera; bukaeran elkarrekin abestuko dute bi abesbatzek



Alegiako Txintxarri txiki haur abesbatzak Kataluniako Begues herrian eskainitako kontzertua. HITZA

NOELIA LATABURU

Azken ikutuak eman ondoren den-dena prest dute Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteok Karmenetako kontzerturako. Gaur kontzertua eskainiko dute arratsaldeko zazpi eta erdietik aurrera Alegiako Joan Batailazailearen elizan, urtero jaietan egin ohi duten bezala.

Txintxarri Txiki haur abesbatzakoak izango dira aldarera igotzen lehenak. Lau abestiz osatutako sorta eskainiko dute gazteek. Aurtengo apirillean Bartzelonako Begues herrian kontzertua eskaini ondoren sa-soitsu dago berrogei ahotsez osatutako taldea. Euskaraz eta ingelesez ariko dira Tolosako Idoia Iraola zuzendari eta so-

prano gaztearen zuzendaritza-pean. Hala, Perpetuek moldatutako *Aldapeko* eta Javi Bustok konposatutako *Mantxa Pio* abesti konplexuak entzun ahal izango dira haien ahotzetatik. Titanic filmeko *My heart will go on* kantu ezagunarekin, Aitor Iraola gaztea pianoan dutela, amaituko dute saioa.

Herrian abestea beti da be-

rezi eta horrexegatik era berezi batez prestatzen dituzte Karmen jaien kontzertua. Aurten emanaldi mordo aurkeztu dituzte bi abesbatzek, baina detetan oroigarriena hau dute.

Helduak, bigarren txandan

Helduen abesbatzak, berriz, zazpi abesti kantatuko ditu. Tomas Garbizuk konposatutako *Zer dugun ikusi* kantuaren doinuekin emango diote hasiera saioari. *Maritxu nora zoaz*, Enrique Ugarteren bertsoan, *Nahi zuya Yin* Pablo Sorozabalen konposizioa edota Barjaren *Aldapeko* obra konplexua izango dira beste euskal doinueak. Hego Amerikako musikaren giroa ekarriko dute *Azulao* eta *Bullerengue* abestiek. *Down by the riverside* kantu espiritualak, berriz, Estatu Batuetako beltz kantariak ekarriko ditu gogora. Garbiñe Orbe-gozo alegitarra zuzendari dutela ariko dira Txintxarri abesbatzakoak, eta Marijere Rekondo eta Julen Goikoetxea alegiarrak izango dituzte lagun pianoan eta perkusioan.

Saioa amaitzeko bi abesbatzek elkarrekin abestuko dute; maorien kantu bat hautatu dute horretarako, Tutira mai, eta erritmo biziz emanto diote amaiera kontzertuari.

ALEGIA ▶

Jaiak direla eta, kale nagusia itxi egingo dute

Gaurtik astelehenera bitarte iraungo du itxita; autobusak geraldaldi bat egingo du

N. LATABURU

Gaur hasi dira Karmen jaiak eta igandea bitarte iraungo dute. Hori dela eta, herria zeharrazten duen kale nagusia trafikoa itxi egongo dela jakinarazi dute Alegiako Udaletik. Hau astelehenera arte izango da, hainbat ekitaldi bertan edo gertu gartuko baitira.

Halaber, Tolosaldeko autobus lineak Alegian egiten duen bere ohiko ibilbidea aldatuko du, ezingo baitu herriatik sartu eta geldialdi bakarra egingo du, gaurtik hasi eta 18ra arte. Bidebarrietako geltokian soilik geratuko du autobusak. Herriarrek egokira honen harira sor daitezkeen eragozpen guztiak barka ditzatela eskatu dute Alegiako Udaletik.

ALTZO ▶

San Inaziotako zikiro jaterako txartelak salgai daude

Hilaren 29an izango da; Arandia jatetxean daude eskuragarri txartelak 18 eurotan

N. LATABURU

Altzon, hila honen amaieran izango dituzte euren jai handiak, Altzoko San Inazio jaiak, alegia. Egitarauaren barruan uztailaren 29rako zikiro jatea antolatu dute, gualdeko 20:30ean izango dena.

Zikiro jatera honetarako txartelak dagoeneko salgai daudela jakinarazi dute Udaletik, Arandia jatetxean. Beraien salneurria 18 eurokoa izango da eta 200 txartela jarri dituzte saltzeko. Beraz, afarira joan nahi duenari azkar ibiltzea gomendatu dute antolatzaileek.

ALBIZTUR ▶ JAIK

Santa Marinako jaiak izango dituzte igandean

Meza, trikitaliak eta herri kirolak izango dira

N. LATABURU

Albiztur jai giroan murgilduko da igandean, Santa Marinako jaiak direla eta. Horrela Asteasuko jaiekin bat egingo dute. Egun guztirako egitaraua antolatu dute Udaletik. 12:30ean meza nagusia izango da herriko elizan. Ondoren Arandia anai trikitaliariek alaituko dute eguerdi artean herria.

Arratsaldean, berriz, herri

kirolak izango dira protagonistak. Horrela, Aimar Irigoien eta Izeta IV.a harri-jasotzaileak izango dira, bai eta aizkolariek ere. Saio honen ostean, Millan Telleria eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariak ariko dira. Gualdean, berriro ere Arandia anaia trikitaliak izango dira herrian. Honen bestez emango diote amaiera Albizturren Santa Marinako jaien ekitaldiei.

AMEZKETA ▶ PILOTA

Bihar, XVI. Joxean Tolosa Txapelketaren neurketak

Etzi eta igandean ere jokatuko dituzte

N. LATABURU

XVI. Joxean Tolosa Txapelketaren jardunaldi berria hasiko da bihar, eta igandera bitarte iraungo du. Hauek izango dira norgehiagokak: ostiralean, kadeteetan, Yeregi-Espartza eta Zelaia-Berrueta; gazteetan, Fernandez-Urrutia eta Beobide-Beloki nagusietan.

Larunbat arratsaldean, Diez-Artola kadeteetan; Irao-

la-Soroa gazteetan eta nagusietan Urtxipia-Iñarra. Gualdean, berriz, Lezaun-Jaunarena kadeteetan; gazteetan Fernandez-Senperena; nagusiak, Aranzabe-Pikabea.

Eta hauek izango dira igandekoak, arratsaldean: kadeteetan, Zinkunegi-Iriarte; gazteetan Pina-Portu eta Martinez-Olano; nagusiek itxiko dute jardunaldia Perez-Katalina pilotarien arteko partidarekin.

LEABURU ▶ GIZARTEA

Leaburuko Benta gogoan

Datorren irailean bost urte egingo dira jatetxea itxi zela; Maria Dolores Ezenarrok bere bizitzako une gehienak iragan zituen bertan eta haren sorrera eta itxiera bitartekoak gogoratu ditu

IÑIGO TERRADILLOS

Datorren irailean bost urte beteko dira Leaburuko Benta famatua itxi zenetik. Urtetan inguruko leku esanguratsuenetakoa izan da, lagunena eta senitartekoen topaleku bezala, atsedenleku edota bazkari eta afaritarako leku gisa.

115 urtetan zehar egon da zabalik, eta bost belaunaldi aritu dira bertan lanean. Maria Dolores Ezenarro erdian kokatzen da, izan ere bost belaunaldietatik hirugarrena izan da berea. Egun 84 urte ditu, eta 12 urte zituela hasi zen zerbitzatzeko, «oraindik mahaira iristen ez nintzelarik», berak kontatzen duen bezala. Bere aitona aitona izan ziren negozioa abian jarri zutenak. Garai hartan tabernaren funtzioa baino ez zuen betetzen, baina urteak aurrera egin ahala berrikuntza dezente jaso zituen. Jende ugari izaten zenez jatetxea jarri zuten, eta kanpoaldean mahaia jarri zituzten.

Aiton-amonon ostean, Maria Doloresen aita eta amak jarraitu zuten, ondoren seme-alabek —taratean bera—, ilobak eta azken belaunaldia horien semeak izan dira «ahal izan dutenean han egon baitira laguntzeko prest», dio Ezenarrok. Ilobek ere berresten dute hori, «txiki txikitatik hasi beharra izan genuen bertan lanean, noski lagundu beharra zegoen familiako negozioak aurrera egin nahi bazuen», azaltzen dute.

Bere bizitzako zati handiena eman zuen bertan, jaio zenetik ateak itxi zituen arte han izan baitzen, eta ohikoa den moduan bizitzako oroitzapen gehienak harekin dute zerikusia. «Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak... sarri izaten ziren, eta agur-afarien kasuan, ia larunbatero izaten ziren gure etxean», azaltzen du. Hara helburu desberdinekin joaten zirela eta era askotariko jende izaten zela dio Ezenarrok; «Tolosa eta inguruko beste herrietatik jende ugari etortzen zen,



Maria Dolores Ezenarro, orain gutxirarte Leaburuko Bentako mahaia jarrita zeuden zelaia atzean duela. I. TERRADILLOS

oso ezaguna baitzen inguruan», dio. «Asko menditik bueltan joaten ziren zerbait hartu eta indarberritzeko asmoz; beste batzuk, janaria ekartzen zuten eta kanpoko zelaian zeuden mahaietan jartzen ziren, eta edatekoa eta eskatzera etortzen ziren gugana; batzuk bazkalondoan tokan aritzen ziren, aukera asko ematen zituen lekua zen, eta nik beti jendez beteta gogoratu

izan dut», dio Maria Dolores Ezenarrok. Denera Leaburuko Bentak 100 lagun ingururen tizat zuen lekua, barrualdean 50 eta kanpoaldean beste hainbeste gutxi gorabehera.

Ateak itxeko unea

Orain bost urte, ordea, ateak itxi beharra izan zituen betirako, jabeek beste proiektu bat baitzuten. Egun, makinak ikus

daitezke lehen Leaburuko Benta zegoen lekuan etxe berria eraikitzeko lanetan

«Tristura handia sentituen behar genuela jakin nuenean eta oraindik ere hala sentitzen dut», erantzuten du Ezenarrok une hura nola bizitu zuen galdetzean, izan ere «urte asko izan dira eta gertatu zaizkidan gauza gehienak bertan izan dira». Itxi behar zutela jakitean, Ezena-

rroren sendiak Bentaren goialdean duten lursailean txabola bat eraikitzea erabaki zuen. Orain, arratsalde batzuetan eta asteburu gehienetan Leaburura igotzen da eta familiarekin biltzen da bertan. Askok gustatzen zaiola bertara igotzea dio, ilobak, bilobak eta gainerako ahaideekin solasean aritzeaz gain, leku horrek urte askotan bizitako oroitzapenak ekartzen baitizkio gogora.

BELAUNTZA ▶ KIROLAK

Eskalada ikastaroa abian

I. Terradillos ▶ Pasa den uztailearen 2an hasi zen Belauntzako Udalak antolatutako eskalada ikastaroa. Guztira bederatzik herritarrek eman dute izena eta hiru hilabetetan zehar, hau da, uztailean, irailean eta urrian ariko dira larunbat goizetan bi orduz. Belauntzako pilotalekua erabiliko dute horretarako. Izan ere, frontoiaren horma batean rokodromo dago eta bertan ikasiko dituzte ikasleek eskaladan jarraitu beharreko pauso garrantzitsuenak. Uda igarotzeko modu berezi bat izango da belauntzar hautzat, une atseginak igarotzeaz gain, gauza berriak ikasiz. HITZA



iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33 telefono zenbakira.

LEITZA ▶ GIZARTEA



Gelan. Batzuk begira, besteak arian! Ebetik eramandako material birziklatua zuten egun horretako lan tresna: margoak, koloretako paperak, pintzelak... eta irudimena, irudimen handia eta trebezia ere bai. JAIONE ASTIBIA



Kamisetak. Diseinu bakarreko kamisetak egin zituztela ez dago ukatzerik, ezta kolore eta marrazki politekoak egin zituztenik ere. Begiratu bestela!! J. ASTIBIA



Lanean. Eta arian arian, jostailuak egin zituzten: goxoki erraldoiak, panpinak, zuhaitzak, kutxak, eraikinak... Edo, jostetan ibiltzea ere aukeratu zuenik bazen, noski. J. ASTIBIA



Erakusketa. Herriko festak gai hartuta, aurreko egunetan egindako koadroak, beren apaingarriekin noski, ikusgai jarrita zituzten pasabidean eta horiek ere erakutsi nahi izan zituzten. J. ASTIBIA

Goiz pasa Dindaia haurren txokoan

Uztailaren aurretik hasita, astez eta goizetan, askotariko ekintzak eginez aritzen dira bertan biltzen diren haurrak

JAIONE ASTIBIA

Dindaia haurren txokoan 21 haur biltzen dira goizero eta 10:00etatik 13:00etara ez dute aspertzeko betarik izaten: jostetan ez bada, eskulanak egiten dituzte; eta eskulanak ez badira, liburutegira joaten dira; edo liburutegira ez bada irteerak egiten dituzte; edo...

Ekimen hau, guraso talde batek bulkatu du: ikasturtea bukatuta, oporretako aisialdia

osatzeko beharra ikusi zuten, udako arratsaldeak igerilekuan egiten badituzte ere, goizak oso luzeak egiten direlakoan eta halako «jolas tailer» bat antolatuzko lanari ekin zioten; bidean, Leitzaldeko Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin eta Dindaia haurren aisialdi taldearen aholkularitzarekin, asmoa zena, egi bihurtu zuten.

Uztailaren 4ean ireki zuten haurren txokoa, 4-10 urte bitarteko umeentzat. 21 ume ma-

trikulatu ziren eta Agrikolan biltzen dira, goizero-goizero. Sarrerako kantua egin eta eguerdi arterako eginkizunei ekiten diete: «Plastika egunero lantzen dugu», azaldu zuten haurren txokoan lanean ari diren hiru begirale arduradunek, Miren Fagoaga, Ireber Arangoa eta Ainhoa Antzizarrek, alegia. Hirza bisitan joan zen egunean, zaborretarako ziren kartoi eta edukiontzien jostailuak egiten ari ziren «iru-

dimen handiz», hain justu bezperan beraiek margotu zituzten kamisetak soinean zituztela —egia esan, oso koloretsuak guztiak ere—. Ordurako, beraiek egindako «koadroen erakusketa» ere jarrita zuten txoko batean.

Baina, handik kanpora ere ateratzen dira jostetara ez ezik, liburutegira astean behingo bisita egitera: «Hara joan eta bakoitzak ipuin bat aukeratu eta maileguan hartzen du astez irakurtzeko, eta hurrengoan itzuli eta berria hartuko dute», argitu zuten, «ohiturak hartzeko bidean», erantsiz; edota astean behin ere, irteerak egiten dituzte, herri ingurua ezagutzera: «Lehenagoan trenbidera joan ginen; herenegun errekan sartu ginen...», zehaztu zuten.

Oharkabean igarotzen zaie goiza. Gela jaso eta «baskaltzera eta bihar arte» kantatuz, horixe, bihar berri.

GIZARTEA ▶

‘Deus ez dago’ esateak ez du balio aurtengo oporraldian

Tailerrak antolatu ditu Gozamenez-ek; gaur-biharretan izena emateko azken egunak

J. ASTIBIA

Hurrengo asteartean hasi eta ostirala arte, eta heldu den astean ere berdin, «sexualitatea eta gazteria arloen inguruko tailerrak» antolatu ditu Leitzaldeko Gizarte Zerbitzuak, Gozamenez programaren eskutik, eta izena emateko azken eguna, bihar dela oroitarazi dute bertatik.

Erabat doan, 14-16 urteko gazteentzat dira, Leitza, Areso, Goizueta eta Lekunberrikoentzat: sexualitate, lastan eta irriterrak tailerrak egiten dituzte, hiru herrietan. Batetik bestera mugitzeko garraioa ere prest dute.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe Tolosa: 652889

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ lurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

